


**Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako finantza publikoak eta Ekonomia Ituna 1929ko krisi ekonomikoaren garaian (1925-1936)**

Mikel Erkoreka

Bilbao, UPV/EHU, 2020, 231 or.



1929ko udazkenean Wall Street-en pizturiko metxa ziztu bizian hedatu zen munduko ekonomia kapitalistetara, aurrekaririk gabeko krisi ekonomiko luze bezain zakarrari hasiera emanez. 2008ko krisi ekonomikoaren eskutik, 1929ko krisiaren gaineko interesa eta gaurkotasuna berpiztu egin da azken hamarkadan arlo politikoan zein akademikoan. Liburu hau, 2008az geroztik ikerketa korrante internazionalan garatzen ari den 1929ko krisiaren gaineko

berrikusketa-prozesuaren barnean kokatzen da; euskal ogasunen kasua oholtzara ekarriz lehendabizikoz eta hura mundu-mailako mapa akademiko eta politikoan jarritz. Ekonomia Itunak egituratzen zuen izaera federaleko gobernantza-sistemaren argitan, hiru herrialdeetako Aldundiek berezko ekintzabidea jarraitu zuten 1929ko krisi ekonomikoaren aurkako politika publikoak ezartzerako orduan. Liburuaren helburu nagusia, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako garaiko finantza publikoen kasu azterketa garatzea da, aurrekontu-analisan eta analisi fiskalean oinarrituz.

Liburua, autorearen Doktorego-tesiaren emaitza da: lau urteko ikerketa sakon eta xehea. Lehen eskuko aurrekontu-likidazio originalen analisisan oinarrituz, metodologia kuantitatiboaren bidetik sakontzen da, ikuspegi finantzario zehatza lortuz. Hartara, itunpeko sistema osatzen zuten eta orain arte ezezagunak ziren hainbat aldagai eta barne-fluxu kuantifikatu eta aztertu dira aurrenekoz. Metodologia kuantitatiboak ez du soilik garaiko estatistika osagabeek pairaturiko hutsuneak betetzeko balio izan; lorturiko emaitzekiko hurbilketa kritikoak garaiko euskal autogobernu-sistemaren egitura eta nondik norakoan jakintzan barrenatzea ahalbidetu du. Ikerketak arreta berezia eskaintzen dio une

bakoitzean martxan jarri ziren politika publikoen eta esparru politiko-instituzionalen jasotako gertakarien arteko elkarrekotasun-loturetan, analisi kuantitatiboaren eta kualitatiboaren arteko oreka mantenduz.

Iturrien aldetik liburuak eskainitako ekarpen berritzaile nagusia orain arte aztertu gabeak izan diren lehen eskuko iturri originalen azterketa finantzarioan datza. Helburu horretarako, lehen eskuko Aldundien aurrekontu-likidazio originaletara jotzen da. Hots, aurrekontu-aurreikuspenetan ez ezik, likidaturiko emaitzetan zimentatzen da ikerketa. Eranskinean, hiru Aldundien 1920-1935 bitarteko ekitaldien aurrekontu-likidazioen seriea argitaratzen da (orain arte ezagutzen den hiru Aldundien aurrekontu-likidazio serie historiko luzeena osatuz), kapituluka eta artikuluka; euskaraz eta gaztelaniaz – jatorrizko aurrekontuetan erabilitako gaztelaniazko terminologia bere horretan mantenduz–.

Liburuaren egiturari dagokionez, sei kapitulutan antolatzen da. Lehenengoan, garaiko testuinguru ekonomiko eta politiko-instituzionalaren sarrera orokorra egiten da; irakurleari kontestuan jarri eta garai hartan izan ziren aldaketa sakonen nondik norakoak ulertzen laguntzeko. Hurrengo hiru kapituluetan, Arabako,

Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundien jardunbidearen eta kudeaketa finantzarioaren bilakaeraren lurraldekako analisia egiten da xehetasun osoz. Segidan, hiru Aldundiak 1929ko krisi ekonomikoaren garaiari aplikaturiko politikak partekatu eta alderatu, eta Estatuak krisiari aurre egiteko aplikaturiko politikekin konparatzen dira. Amaitzeko, ondorio nagusiak laburbildu eta azpimarratzen dira. Gerora, hiru Aldundien aurrekontu-lidikazioen serieak eranstean dira.

Azterketa 1925ean abiatzen da, kupoaren berriztapenarekin, eta 1936ko uztailen gertatutako estatu-kolpearekin amaitzen da, Gerra Zibilaren atarian. Kronologikoki denboratarte laburra bada ere, aldaketa ekonomiko-fiskal eta politiko-instituzional handiko garaia izan zen euskal erakundeentzat. 1925 eta 1936 bitartean, Aldundien jardunbidea errotik baldintzatu zuten hiru gertakari azpimarratu behar dira: 1925ko kupo-berriztapena, 1929ko krisi ekonomikoa eta II. Errepublikaren ezarpena. Errepublikaren ezarpena. 1931ko erregimen aldaketa, aro politiko berri eta ezezagun baten abiapuntua izan zen. Errepublikaren garaiari, gestore errepublikar eta sozialistak hiru Aldundien agintera heldu ziren aurrenekoz historian. Mundu-mailako ziklo-aldaketaren zipriztinek alde batetik, eta

barneko ezegonkortasun politiko-sozialek bestetik, krisi ekonomiko larri eta sakona eragin zuten euskal probintzietan hogeita hamarreko hamarkadaren lehen bosturtekoan.

Itunpeko ogasunek gauzatzen zuten botere fiskal eta finantzario zabala zela eta, beste hainbat ogasun estatalek eta federalek aplikaturiko tresna berdinak erabiliz, euskal Aldundiak aurrekontu politikara eta politika fiskalera jo behar izan zuten krisiak sorturiko beharizan ekonomiko eta sozialei erantzuteko. Baina orain arte, ez da inoiz sakondu garaiko Aldundien ekintzabide fiskal eta finantzarioan. Nola eragin zien 1929ko krisi ekonomikoak itunpeko ogasunei? Zein politika aplikatu zituzten Aldundiak? Aldundiak era autonomoan garatu ahal izan zituzten beren politika publikoak? Kanpo esku-hartzerik jasan zuten? Krisiak itunpeko sistemaren oinarriak aldatu zituen? Liburuak, galdera guzti hauek erantzuten ditu lehendabizikoz.

Krisi abaguneak, euskal ogasunen esku-hartze ahalmena ez ezik, itunpeko sistema fiskal eta finantzarioaren erresilientzia-gaitasuna ebaluatzeko testuinguru ezin hobea ere eskaintzen du. Ildo honetatik, 1929ko krisi ekonomikoa, garaiko Aldundiak beren gain hartzen zuten aldebakarreko

arriskuaren erakusle ikusgarria izan zen: Aldundiak beren gain hartu zituzten beren politika eta erabakien arriskuak eta ondorioak. Ikerketak egiaztatzen duenez, kapitalismoaren historian aitzindari izan zen 1929koa bezalako krisi ekonomiko luze bezain zakarrari tresna propioekin eusteko eta erantzuteko gai izan ziren hiru Aldundiak; itunpeko sistemaren heldutasun, autonomia-maila eta bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa praxian frogatuz.

Hortaz aparte, gaur eguneko irakurle bati aukera eskaintzen dio garaiko autogobernu fiskal eta finantzarioaren ereduaren funtzionamendu praktikoa hurbiletik ulertzeko. Gaur egunean indarrean dagoen autogobernu sistemaren sustraiak hobeto ulertzeko eta nondik norakoak xehetasun osoz ezagutzeko liburu paregabea da.

Josu HERNANDO PÉREZ